

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko onartzea

Erreferentziako espedienteari alegaziorik egin ez zaionez, espedientea argitaratu da indarrean jartzeko.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 19.2.a) artikuluan eta 45/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorritik, ordenantza honen arabera eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ezarri eta exijitzen du, eta horren zati da aplikatu beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina.

2. artikulua

Ordenantza udalerrriaren barruti osoan aplikatu behar da.

II. Zerga-egitatea

3. artikulua

Zerga honen zergapeko egitatea da Arratzua-Ubarrundiako udal-mugaratean obra- edo hirigintza-lizentzia lortzeko eskatzen den edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, lizentzia hori lortu den ala ez, edo erantzukizunpeko adierazpena edo alde aurreko jakinarazpena aurkezteko eskatzen den lizentzia edo kontrol-jarduera udal honi badagokio.

4. artikulua

Honako hauek dira zergapeko egitateak:

1. Oin berriko mota guztietako eraikinak edo instalazioak eraikitzeako obrak.
2. Mota guztietako eraikinak edo instalazioak handitzeko obrak.
3. Mota guztietako eraikuntza, eraikin eta instalazioen egitura edo konfigurazio arkitektonikoari edo kanpoko itxurari eragiten dioten aldaketak edo eraberritzeak.
4. Barruko itxura aldatzekoak edo eraikinak birgaitzeko direnak, edozein erabilera dutela ere, lehendik dagoen etxebizitza bitan edo gehiagotan banatzea dakartenak barne.
5. Behin-behinean egin beharreko obrak.
6. Lur-mugimenduak, hala nola lur-erazketak, indusketak eta lubetak, salbu eta egintza horiek urbanizazio- edo eraikuntza-proiektu onetsi edo baimendu batean gauzatu beharreko obra gisa zehaztuta eta programatuta badaude.
7. Eraikinak eraistea, berehalako aurri-egoeran dauden eraikinetan izan ezik.
8. Aparkalekuak, industria-, merkataritza- edo lanbide-jarduerak, zerbitzu publikoak edo zorupearen beste edozein erabilera egiteko lurpeko instalazioak.

9. Bide publikotik ikus daitezkeen propaganda-kartelak jartzea.
10. Eraikuntzaren osagarri diren urbanizazio-obrak.
11. Finkak, hormak eta hesiak ixtea.
12. Bideak irekitzea eta horiek aldatzea edo zolatzea.
13. Etxe aurrefabrikatuak eta antzeko instalazioak, behin-behinekoak edo iraunkorrak, kokatzea.
14. Berotegiak instalatzea.
15. Linea elektrikoak, telefonikoak edo antzekoak eta telekomunikazio-sareak edo energia garraiatzeko sareak instalatzea eta edozein motatako antenak jartzea.
16. Gaitasun ekonomikoa erakusten duten eta obra- edo hirigintza-lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena behar duten baliabide ekonomikoak inbertitzea dakarren edozein obra, eraikuntza edo instalazio.

Betearazpen-aginduek eta betearazpen subsidiarioek ere zerga hau ordainaraztea ekarriko dute.

5. artikulua

Ez dira zerga honen mende egongo udal honen jabari-titulartasuna duten higiezin gainean egindako eraikuntza, obra edo instalazioak, baldin eta obraren jabea bada.

III. Salbuespenak

6. artikulua

Zerga honetatik salbuetsita egongo dira:

a) Estatuaren, autonomia-erkidegoen, lurralde historikoen edo toki-erakundeen jabetzako edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, baldin eta, haren mende egonik, zuzenean bideratuko badira errepide, trenbide, aireportu, obra hidrauliko eta herrien eta horien hondakin-uren saneamendura, nahiz eta horien kudeaketa erakunde autonomoek egin, bai inbertsio berriko obren kasuan, bai kontserbazio-obren kasuan.

b) Arabako Lurralde Historikoko kontzejuen jabetzako edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, zerbitzu edo erabilera publikorako bada.

c) Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezin gaineko zergari buruzkoak (Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian aipatzen diren monumentutzat hartzen diren ondasunak), 4. artikuluko 1. idatz-zatiko k) letran jasotako salbuespena aplikagarri zaien ondasunetan egindako edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea.

d) Lehendik zeuden eraikin edo eraikuntzen arkitektura-oztopoak kentzea dakarten obrak edo eraikuntzak.

IV. Subjektu pasiboak

7. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan 3. paragrafoan aipatzen diren pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta erakundeak, bai eta testamentu-ahalorde bat egikaritzeko edo gozamen ahaltsu bat egikaritzeko zain dauden jaraunspenak ere, baldin eta ondasun higiezin horren eraikuntza, instalazio edo obraren jabe badira edo jabe ez badira.

Aurreko lerrokadan aurreikusitako ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabetzat hartuko da horiek egiteak dakarren gastu edo kostuaren euskarri dena.

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, zergadunaren ordeko subjektu pasibo izango dira kasuan kasuko lizentziak eskatzen dituztenak edo kasuan kasuko erantzukizunpeko adierazpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak, edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

Ordezkoak ordaindutako zerga-kuotaren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari.

V. Zerga-oinarria

8. artikulua

1. Zergaren zerga-oinarria eraikuntza, instalazio edo obraren kostu erreal eta efektiboa da, eta, ondorio horietarako, haren egikaritze materialaren kostua da.

Ez dira zerga-oinarriaren barruan sartzen balio erantsiaren gaineko zerga eta araubide be-rezietako gainerako zerga analogoak, eraikuntzarekin, instalazioarekin edo obrarekin lotutako tasak, prezio publikoak eta tokiko izaera publikoko gainerako ondare-prestazioak, ez eta profesionaleen ordainsariak, kontratistaren enpresa-etekina eta exekuzio materialaren kostua hertsiki osatzen ez duen beste edozein kontzeptu ere.

VI. Zergaren kuota

9. artikulua

Zerga honen kuota kalkulatzeko, eranskinean adierazitako karga-tasa aplikatuko zaio zerga-oinarriari.

VII. Bonifikazioak

10. artikulua

1. Kuotaren ehuneko 95eko hobaria izango dute eraikuntza, instalazio edo obrek:

– Eguzki-energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak dituztenak. Hobari hori aplikatzeko baldintza izango da beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistemak (UBS) izatea.

– Birgaitze energetikoa egiten denean A motako etiketa energetikoa lortzeko.

2. Kuotaren ehuneko 80ko hobaria izango dute B motako energia-etiketa lortzeko birgaitze energetikoa egiten duten eraikuntza, instalazio edo obrek.

3. Kuotaren ehuneko 90eko hobaria izango dute desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun- eta bizigarritasun-baldintzak errazten dituzten eraikuntza, instalazio eta obrek.

4. Ehuneko 95eko hobaria izango dute berokuntza-sistemak instalatu eta berritzeko, etxe-bizitzetan leihoak aldatzeko eta proiekturik behar ez duten fatxadak egokitze egiten diren birgaitze-lanek, udalarentzat interes bereziko obrak direlako, udalerriko biztanleen bizi-kalitatea eta gure herrien alderdi estetikoa hobetzen dutelako.

Artikulu honetan ezartzen diren hobariak indarrean dagoen legediaren arabera nahitaez inbertitu behar ez diren zenbatekoen gainean eta jarduera horietara soilik bideratutako kopuruen gainean baino ez dira aplikatuko.

VIII. Sortzapena

11. artikulua

Zerga eraikuntza, instalazioa eta obra hasten diren unean sortuko da, dagokion lizentzia lortu ez bada ere.

IX. Kudeaketa

12. artikulua

Nahitaezko lizentzia ematen denean edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztzen denean, edo lizentzia eskatu, eman edo ukatu ez denean, edo instalazioa edo obra eraikitzen hasten denean, behin-behineko likidazioa egingo da kontura, eta zerga-oinarria zehaztuko da:

a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, baldin eta dagokion elkargo ofizialak oniritzia eman badio aurrekontuari, eta hori nahitaezko baldintza bada.

b) Bestela, udal-teknikariek zehaztuko dute zerga-oinarria, proiektuaren kostu zenbatetsiaren arabera.

13. artikulua

Lizentzia eman ondoren hasierako proiektua aldatzen bada, aurrekontu berri bat aurkeztu beharko da behin-behineko beste likidazio bat egiteko, aldatutako aurrekontuaren arabera, hasierako aurrekontua gainditzen duen zenbatekoan.

14. artikulua

Benetan egindako eraikuntza, instalazio edo obrak eta horien benetako kostua ikusita, udalak, dagokion egiaztapen administratiboaren bidez, 12. artikuluan aipatzen den zerga-oinarria aldatuko du, hala badagokio, dagokion behin betiko likidazioa eginez eta subjektu pasiboari eskatuz edo, hala badagokio, dagokion zenbatekoa itzuliz.

15. artikulua

Lizentzia baten titularrak obra, eraikuntza edo instalazio baimenduak egiteari uko egiten badio, idatziz berariaz uko eginez, udalak egindako behin-behineko likidazio osoa itzuli edo ezeztatuko du.

**ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA
ARAUZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA****Eranskina**

Tarifa

Eraikuntza, instalazio edo obra mota	Sortzapen-mota
Obra-mota guztietarako	ehuneko 3,2

Indarrean sartzea:

Ordenantza fiskal hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen diren sortzapenentarako izango ditu ondorioak, eta indarrean jarraituko du berariazko aldaketa edo indargabetzea erabaki arte.

Jende guztiak horren berri izan dezan ematen da aditzera hau, eta jakinarazten da horren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, iragarki hau argitaratu eta bi hilabeteko epean.

Durana, 2022ko urtarrilaren 18a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE